

9. KOSTU EGITURA

- **Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

Gure enpresa aurrera eramateko hainbat kostu izango ditugu. Gure helburua kostu hauek minimizatzea da, hau da, ahalik eta diru gutxien xahutzeko. Hortaz, honako kostuak izango ditugu:

Kostu finkoak → lokalaren alokairua (250€), wifi-aren kostua (50€), 2 esekileku (produktu bukatua bertan zintzilikatzeke → 45€/bakoitzak)

Kostu aldagarriak → elektrizitatea, argia eta telefonoaren fakturak hilero, materialen erosketa:
artilea (4€/100m), 2. eskuko galtzak (15€/unitatea), haria (2€/unitatea), botoiak (0,1€/unitatea)

Eskala-ekonomiak → salmentak handitzean, materialen erosketa merketuko da, aldiro kopuru handiagoak erosiko ditugulako.

Hedapen-ekonomiak → arazo ekonomikoak izanez gero, josteko ikastaroak emango genituzke, jada ditugun josteko makinak eta materialak erabiliz. Horrela, diru kopuru gehigarri bat lortuko genuke.

ALDAKORRAK			
MATERIALA	PREZIOA (€/unit)	KANTITATEA	GASTUA
Bakeroak (2 esku)	15	15	225
Artilea (m)	0,04	100	4
Haria	2	8	16
Botoiak	0,1	50	5
Kaxak	0,67	15	10
		GUZTIRA:	260

FINKOAK	
ZER	PREZIOA
Alokairua	250
WiFi	50
Argindarra	60
Soldata	Irabaziak/4
GUZTIRA:	360